

TXAPELKETA NAGUSIAREN ONDOKO GOGOETAK

Ohartu orduko denborak irentsi du geure-geurea genuen puskatxo bat. 1994an itzartu gara. Iazko urteak kontu ugari esan digu. Belarri ertzera eta bihotz-muina. Nik barneko liburuan idatzirik ditut batzuk. Hortik, irakurle, poliki-poliki gorde berria nuen kultur ekintza xume bat atera dut zuretzat: Bertsolari Txapelketa Nagusia. Izan ere, 1993ko urtea txapelketa nagusiaz markaturik zetorkigun, eta halaxe joan zaigu, doinuz janzten den bat-bateko hitzaren jolasean agur esanez.

Lau urterik behin txapel preziatua nork jantziko elkarren lehia aritzen dira bertsolariak. Geroago eta ederrago berritzen den artearen erakusketa goi-mailakoa dastatu ahal izan dugu oraingoan ere. Bertso-saio onak entzutean, maiz pentsatu izan dut, aberastasun berezi hori behintzat badugula. Poztu eta harrotu egin naiz altxor horren jabe den herriaren parte naizelako, izan ere, bertsoa tresna malgua da artisten ahotan sentimenduak adierazteko, barre eragiteko, jostatzeko, zerbait kontatzeko, hainbat gauzatarako. Euskararen gabeziaz iletan jotzen dutenak, oraingo giro berrira egiteko, mundu modernoaren itsasoan murgiltzeko xaharkitua ikusten dutenak, hurbil bitez bertso-mundura. Euskarak auzoko erdaren horzkadak, batzuen

eta besteen erasoak jasan ditu. Maiz ikusi izan dugu arropa zarpailduz, inoren aurrean agertzeko ez inorako ez dela. Bai, egia esan, euskara baliabide gutxitxo dagoela ohartzen gara zenbait arlotan. Baina altxor hori, bertsolaritza, hor dugu eta ez da gutxi. Badakigu ez dela nahiko ere...

Azken batez, sarrera honetan adierazi nahi nuena X. Amurizarren bertso batek esaten duela hobeki ohartu naiz. Hona hemen:

*Bertsolariak herri bizia
dauka beti bere aurrez
eta han bera hortzen ertzetik
hitzak atera beharrez
Behin ariko da humore onez
behin amorruzko indarrez
negargileak barrez jarririk
barregileak negarrez
hau eta dena nahi dugu baina
ez da uste bezain errez.*

Txapelketa Nagusia, bertsolaritzaren termometro

Ene iritziz, bertsolaritzaren unerik gorena txapelketa nagusia dugu. Urtean zehar, han eta hemen, serio nahiz umorez, sentimendu biziz nahiz zirika... bertsolarien hitza garaian garaiko gertakari eta bizitzaren lekuko izan ohi da. Ahalik eta egokien, arteaz, herri-doinu zahar eta berriz jantzirik, kantatu eta kontutu izan dute sentimenduei zeriena nahiz kanpoko gertakariak eragindako bihotz-dardara.

Ohizko guneak honako hauek izaten dira: herri eta auzoetako jaiak, euskararen aldeko kanpainak, bertsolari egunak, norbait omentzeko egunak, urtean zehar beren-beregi antolatutako jaialdiak, bertsolarako asmoz antolatutako bertsolari eta bertsozaleen bazkari eta afariak, bertso-eskoletako partaideek beren buruak trebatzeko egiten dituzten bilerak, ezbeharren bat izan dutenentzat dirua lortzeko egiten direnak, Santa Ageda bezpe-



*1993ko txapelketa nagusiko
epaile eta idazkariak.*

rako koplak, tokian tokiko bertso txapelketak... Dena dela, bertsolaritzak bere ihardueran hartzen duen gailurra txapelketa nagusikoa dela esango nuke. Bertsolariak jendaurreko saio guztietan duintasunez aritu beharra badu ere, Euskal Herriko txapelketa du plaza nagusi eta hara, garunak estuturik, azken hondarreraino ematera, ekinahalak egitera joango da. Plazetan usu dabilzanak ez, baina plaza gutxi egindako gazteak badaki hori duela gorantz egiteko abiapuntu. Hortik ez bada, mirari handiak egin beharko dituela puntakoen artean lekutxo bat egin ahal izateko. Ingurunea ere horrelakoa izan ohi da: giroa pil-pil txapelketa hasteko egunak hurbildu ahala. Eta txapelketa bitartean ere irrikaz izan ohi da jendea. Lehiaketa-sua bizi-bizi aurreko fasea nork gaudituko; eta bereziki Anoetarako zortzi-kotea nola osatuko den jakinmina bertsozaleen golkoan.



Bertsozaleen irudimenetik, filme batean bezala, pasatuko ziren batzuk eta besteak. Eten gabe plazaz plaza ari direnak eta ezkutuxeago egondakoak. «Hitzetik hortzera»ko pantailan maiz agertzen direnak eta horretako aukera handirik ez dutenak...

Hautatu horiek, bertsolari handi horiek, guztion gogotan dauden horiek eutsiko ote diote goiari? Grazia eta irudimen joridun gazte ausarten batzuk ez ote zaizkie bekoz beko jarriko? Gailurreko

gipuzkoar horiei antzik ematekorik izango ote da beste herrialdeetan? Epaileei dagokienez, izango ote dira gai inoren alde-rantz bidegabeki lerratu gabe, nori berea emateko? Galderak eta galderak. Izpiritua erne, irudimena zoro, irudiak borborka eta nahasian...

Oraingo txapelketaren berezitasunak

Lekuei dagokienez, Leitzan, Gernikan, Laudion, Hendaian eta Zumarragan izan ziren kanporaketak; final-aurreak, berriz, Eibarran eta Bilbon; finala, ohizkoa denez, Donostiako Anoetan.

Bertsolarien adina kontutan hartzen badugu, geroago eta gazteagoak agertzen zaizkigu. Txapelketako berrogei bertsolarien artean, Jose M.^a Lertxundi genuen zaharrena, 1932an jaioa. Gero, hurrenez hurren, Bittor Agirre, G. Larrañaga «Mañukorta», Mixel Aire «Xalbador II.a», Joan Mari Areitio eta abar datoz. Batez bestekoa, 32 urte. Finalean, berriz, zaharrena Jon Enbeita genuen 43 urterekin, ondoren Angel Mari Peñagarikano 36rekin, Sebastian Lizaso 35ekin, Andoni Egaña, Xabier Euzkitze eta

abar hurrenez hurren. Gazteena Unai Iturriaga 19 urterekin; batez bestekoa, 30 urte.

Entzulegoaren batez besteko adinak ere txiki samarra izan behar du, zenbatekoa den zehatz-mehatz esaterik ez badut ere. Andoni Egañak «Bertsolamintza» izeneko jardunaldietako hitzaldian zioena egi-egia da: garai batean ohol-tza gainetik ia txapela baizik ez zela ikusten zioen. Gehienak baserritarrak eta adinekoak zirela; gaur egun, berriz, gazteak gehienbat eta gizarte-ko edozein multzo nahiz motatakoak, baita multzorik bitxienetakoak ere. Emakumeak ere ugari; hauek, gainera, bertsolarien artean emeki-emeki leku eginez doaz. Belodromoko finalak, berriz, oihartzun aparta izan omen zuten. Erdal komunikabideetakoak ere ukitzeraino, kontizitu. Hauek ere zerbait berezia edo interesgarria somatu omen zuten hor. Nola edo hala horra hurbildu eta gertakari horren berri jaso nahia agertu omen dute.

Hari-mutur horri tira eginik, kontutan izateko beste xehetasun bat, berrogei bertsolarion artean, baserritarrak hain gutxi izatea dugu. Finalekoen artean bat ere ez, batzuk jaiotzez edo jatorriz baserriarekin lotura zuzena dutenak izan arren. Hemen





garbi ikusten da, euskararen oinarri soziologikoa bezalaxe, bertsolaritzarena ere aldatuz doala abiada bizian. Aldaera honen nondik norakoa baserri-girotik kale-girorantz, hiri-bizitzarantz doala esango nuke.

Bertsolariei jarri zaien lana ere azpimarratzekoa da. Gartzelako lanean bi gai aukeratzeko ematea izan da berriena eta, agian, eztabaidagarriena ere bai. Bukaera emanik, zortziko handian bertsoa osatzeak ere izan du aldaerarik, azken puntu edo esaldi osoa ematetik errimadun azken hitza soilik ematera joz. Lehen fasean ez dut aipatzea merezi lukeen beste ezer somatu; bai, ordea, final aurrekoetan eta finalean.

Gartzelako lanaren berrikuntzari dagokionez, zenbaiten ustez, kalterako izan da eta beste zenbaiten ustez mesederako. Ia beti bezala, guztitariko iritziak somatu ditut. Haiek diotenez, gartzelako lanaren izaera bera ere ia galdu egin da horrekin, ariketa horren zera bertsolariak gai bakar eta berarekin neur-

tzea baita. Beste alde-
tik, bertsolariak, bere
ezkutu-zulotik datorre-
nean, bete-betea eta
puntu-puntu jotzen
du oholta gainera
duena ematera eta ez
du aukera-maukeretan
aritzeko jarrerarik. Bes-
te muturrekoek, ordea,
lagungarritzat jo dute,
eta bertsolarien arteko
joera desberdinei ego-
kituz, gaietan ere bi
aukera desberdin ema-
tea ongi hartu dute.

Zortziko handian ber-
tsoa osatzeko erimadun
azken hitza soilik ema-
teaz jaso nuen iritzi ba-
karra kontrakoa izan
zen. Bertsolariak bertsoa
egituratzeko abiaburu-
tzat azken puntu edo

esaldi osoa hartzen duela, eta ez erimadun azken hitza soilik...

Beraz, ez dela hain normala, bertso-egituraren hurrenkera
edo bertsoa egiteko prozesoa kontutan izanik.

Bi berrikuntza hauetaz bertsolariak izan beharko lukete az-
ken hitza, baina harako «zenbat buru, hainbat aburu» hemen
ere beteko ote den beldur naiz. Nik neuk ez diet atxakia handi-
rik aurkitzen berrikuntzoi. Bereziki erimadun hitza soilik
emanda, orohar, bertso onak kantatu dituztela ziurta dezaket.

Final aurrekoetan eta finalean, ohizko duten ofizioetako lanaz
gainera, elkarrizketakoa jarri zieten bertsolariari. Hemen dialekti-



ka ez da ezinbestekoa. Gai berari buruz dituzten ikuspegi desberdinak adierazteko nahiz batak bestearena osatzeko aukerak ematen ditu, har daitezkeen bideak nahiko zabalak izanik. Eztabaida hutsa izan gabe, bertsoan gaiak jorrazteko, interes handiz eta biziki ideiak bertsoan egoki tolesteko abagunea eskaintzen zaie bertsolariei. Horretan guztia izan daitekeela zilegi ematen du; baina bai zera! Hasteko, gainerako ariketetan zilegi ez dena, honetan ere ez da. Beste aldetik, elkar ongi harturik, txukun, hariari jarraikiz eta ideia berri antzekoak agertuz ihardutea eskatuko genuke hemen. Inola ere ez nahasian, itsumustuan, ezer berririk esan gabe betiko leloan aritzea.

Finalean lan gaitza izan zen. «Gaitza» diot handia, luzea, ikaragarria zelako alde batetik, eta zaila zelako bestetik. 26na bertso kantatu behar zituen bakoitzak. Azpimarragarriak honako hauek: bederatziko puntuko txikian kantatu beharreko bertsoa, «haizak hi mutil mainontzi» doinuan hiruna bertso ofiziotan eta «Iparragirren doinuan» beste hiruna bertso; hauek ere ofiziotan. Nahiko lan goiz eta arratsalde guzti hori txukun egiteko. Zama astun horri eusteko ongi trebaturik joan behar, edo eta bestela «Goiko» nire adiskidearen etxeko astotxoarena egin behar. Hari zama astunegia ezarri gero, karga eta guzti etzan egiten omen zen, eta zama bere neurrian jarri arte ez omen zen jaikitzen...

Donostiako Anoetara bidean eroritakoen aipamena egin gabe ezin etsi. Trenaren irudia maiz aipatua da. Urolako tren bertso-tarako gai izan dute behin baino sarriago inguru hartakoek. Tren zahar hura maite zuten eta tren galduak utzitako zirrara tristea oraindik gogoan dute batzuek. Anoetarako tren galduaren horzkada izango dute beste batzuek gogoramenean. Hain zuzen ere batzuk ate-atean gelditu ziren eta sartu ezin... Hauen artean Mikel Mendizabal, Iñaki Murua eta Igor Elortza aipatu behar. Lehen biak izen handikoak eta Anoetako finalean izatea zer den ongi dakitenak. Muruak, gainera, lehen fasean Gernikan egindako saio bikainaz jende guztia txunditurik utzi zuen. Hark gartzelako lanean kantatutakoak hor geldituko dira bertso hobereenen artean

idatzirik eta batez ere bertsozaleen gogoramenean itsatsirik. Gero, Eibarko final aurrekoan irrist eginik, Bilbon egindako lan txukuna ez zuen nahiko izan... Mikel Mendizabali ere antzeko zerbait gertatu zitzaion. Nire ustez hura baino beheraxeago aritu zen, hala ere. Igor Elortza gazteak garbi erakutsi zuen zer mailatako bertsolaria den. Askoren iritiz, zortzi hoberenen artean iza-tea merezi zuen. Epaimahaiak ez zuen hala uste izan...

Lehen fasean poliki eta hoberenen artean aritu ondoren, Bilbon jo zuen gailurra ikaragarritzko maila erakutsiz; hala ere hor egindako pota batek eta Eibarren ihes egin zioten puntu bat edo bestek eragotzi zioten Anoetarako sarrera. Dena dela, ondorengo txapelketa nagusietan Igor Elortza finalean ikusteko itxaropena biziki piztu da Bizkai aldeko bertsozaleengan.

Lehen fasean bertan, Zumarragan, ezustekoa: Millan Telleria ez zen hurrengorako sailkatu. Ez zuen egun onik izan, ezta horrelako uneetan behar den zorte onik ere. Bertsolari on eta kantaririk atseginenatariko hau gabe gelditu zen txapelketa.

Ahokotasunaren bila

Ahoko hizkeraren ikerketa sakon eta serioak oraindik egin-kizun direla esango nuke. Badakit, hala ere, Justo M^a Mokoroaren *Repertorio de locuciones del habla popular vasca* eta Koldo Izagirreraren *euskal lokuzioak* argitaratuak direla. Aspaldikoa dugu Paulo Zamarriparen *Manual del vascófilo* ere. Bizkaieraz egiten dugunontzat urrezko liburua. Ezin ahaztu nafar euskaren esparruan Damaso Intzaren Naparroa-ko *euskal-esaera zarrak* liburutxo. Gotzon Garateren *Erdarakadak*, Jose Mari Sartrustegiren Ipuin miresgarriak... Lokuzio-zerrenda hauek one-nean ere ez dira hain erabilgarriak. Justo M^a Mokoroaren bi liburukiak, handiak bezain erabilgaitzak dira. Fitxategirik gabeko liburutegi handi bat gogorarazten dit.

Ahoko hizkeraren baliabiderik erabilienak beharko genituzke: ahoko formak, esapideak, lokuzioak, esaerak, onomato-



Epaimahaiko batzuk.

peiak... Baina ez zerrenda soilak. Ahozkotasunaren giltza eskainiko ligukeen zerbait, teoriak eta adibidez horniturik. Baita inguruko erdaretan, zenbait talde berezitan, erabili ohi den zaphizkeraren pareko euskarazko esapideak ere. Bertsolaritzarako oinarri oso baliotsua litzateke, hortik edan eta era berean hori lantzen baitu bat-bateko bertsolaritzak. Tesi baterako lan egokia genuke hau: Euskalkietan barreiatu dagoen altxorra! Batzuk ahoz aho barra-barra dabilzanak, zorionez. Beste batzuk galzorian, aiton-amonen solasetan baizik entzuten ez direnak; denboraren eta erdararen erasoak betiko irensteko zorian daudenak... Bai, ahozko hizkerarena funtsezko arazoa da, korapilatsua, larria. Euskarak hortxe du jokoan bere etorkizuna, eta bertsolaritzak zer esanik ere ez. Ahozkotasunaren bila euskalkietara jo beharra dago. Esapide gozo, aberatsak, euskarak bere-bereak dituenak euskalkietan gordetzen dira. Beraz, euskal-

kietan edatea ezinbestekoa zaio euskarari, baina txokokerietan erori gabe. Jakina, txokoetako guztia ez da keria; guztion euskararako hitz eta esapide egokirik asko izan ohi da bazterretan.

Lantxo honek ez du ematen honetan gehiago luzatzeko. Gainera, zurrumbilo horretan erraz nahasiko nintzateke. Hala ere hizkuntza idatziaren eta ahozkoaren bereizketa bai egin nahi nuke gaingiroki edo irazezan bada ere:

Ahozko hizkeraren ezaugarrietariko bat arintasuna da, bizitasuna. Baita bat-batekotasuna ere. Horrela, beharrezkoa ez dena isilduz, elipsiak egoki eginez ari da, esaldiak guztiz biribildu gabe. Logika-senari eta arrazoibideari ongi atxikiz, baina logikaren formak, loturak eta abar ezkutatuz. Irudi eta ideietan mugimendu oso azkarra da; batetik bestera saltoka bezala aritzen dena. Bat-bateko sortze-lana da. Horregatik atzera-aurre-raka aritzen da batzuetan eta errepikapenak ere ugari izan ohi dira, esandakoak hobeki esan edo pixka bat zehaztu nahirik.

Idatzizkoa askoz baratzagoa, geldiagoa da eta ez da inola ere bat-batekoa. Erditze neketsua eta zaila izan ohi du eskuarki, eta guztiok dakigu zerbait paper zuriaren aurrean, bakardadean, izan ohi dugun borrokaz. Logika oso kontutan hartzen du eta ideiak al bait egokien lantzea du ezaugarrietariko bat. Gainera, logika adierazteko formak, loturak, juntagailuak... beren-beregi adierazten dira. Idazkera edo estiloaren arabera, elipsiak ere tarteka-marteka egin arren, esaldi biribilak izaten dira, beharrezko elementuz ezezik, komenigarritz eta, askotan, apaindu-riaz ere hornitzen delarik. Laburdurarik ez du onartzen. Hitzak oso-osorik, desitxuratu gabe erabiltzea eskatzen du.

Literatur mailan, Mikel Zarateren «Idatz eta Mintz» ipuinean ongi adierazirik dugu hau guztiau...

Bai idatzizkoan eta bai ahozkoan, forma arruntagoak nahiz jantziagoak eskatzen dituzten guneak daude. Ahozko hizkeraren barruan, bat-batean bertsotan egitea era guztiz berezia da. Sortze-lana, bat-bateko artea eta, beraz, bat-bateko baliabideen

erabileran trebetasun eta erraztasun aparta eskatzen dituen. Sortze-lan artistikoa denez gero, nagusiki erabiltzen den bitartekoa, hizkera, egoki eta dotore erabiltzea eskatzen du.

Ikuspegi honetatik, eta bertsolaritzak izan duen eraldakera kontutan izanik, ahozko formak eta idatzizkoak asko hurbildu direla esan behar. Zergatik? Bertsolariengatik batez ere. Guztiak eskolatuak, batzuk karreradunak, gutxi-asko euskara idatziaren ukitua izan dutenak, batzuk idazle, kazetari, maisu eta abar ditugu. Bertsolari gazteak ikastolan ikasiak eta hauetatik batzuk gaur egun unibertsitatean euskaraz ikasketak burutzen ari direnak. Honek guztiak eragiten du bertsotako euskara idatzizkoaren antzekoa izatea. Horrek ez du esan nahi euskara hobe egiten denik, ezta txarragoa egiten denik ere.

Ahapaldi ongi taiutuak

Berriro ere X. Amuriza aipatu behar dut. Bertsolariak bat-batean ari dela, bertsoa nola egituratzen duen adieraziko digu Xabierrek, hain aipatua den atzekoz aurrerako teknika erabiliz. Honela dio hitzez hitz:

«Ez dago bertsoaren puntu bakoitza arrazoi handiz edo kolpe zorrotzez kargaturik eramaterik. Orduan, progresioren bat izatekotan, aurretik atzerantz izan behar, azkena gailurtzat harturik. Horretarako aurretik betelana deritzona egin behar izaten da, bertsoa azkenerantz eramanik. Betelan hori ez da lan hutsa. Nabarmena eta hutsa izan liteke. Baina berez, betelana bertsolariaren trebetasun handietariko bat da. Arrazoi handiegirik esan gabe, haria hartu eta dotore eta bizi eraman, errepika arruntik gabe. Hori arte bat da eta gehienetan entzulea ez da ohartzen betelana egiten ari den. Horretara ulerturik, betelana lan handia da, arte handia da. Bertsolaria azken buruan duela kantatzen ari da.

Bertsoak horrela goranzko progresioa eraman behar du. Oro har, bi eratako bertsoak izan litezke. Batzuk indar guztia azkenean kargatzen dutenak. (...) Beste batzuk bertso guztian

zehir dakarte indarra eta azken puntua ondorio edo biltzaile bezala dator. Inoiz ezin dena da azkenean jaitea, azken puntua aurrekoak baino motelagoa izatea. Orduan bertsoak asko galtzen du».

Epaimahaikook izan ditugun bileretariko batean ñabardura txiki bat erantsi genion aurreko zatitxo horri. Betelan hitzak gehinetan esanahi txarra du: ideiak urri direnean, bertsoa mezurik gabe, hitz hutsez hornitzea; lastoz, galtzuz bete garaurik gabe... Amurizak arte handitzat, meritu handikotzat jotzen duen horri betelana ez baina bertso osatze-lana deitzea ego-kiagotzat jo zuten gure bileran. Dena dela, izenaren gorabehera besterik ez da...

Ahapaldi luze eta laburren zera berriro ere auzitan jarria dela dirudi. Horma eta harri-piloaren irudia atera dute. Irudi polita eta adierazgarria. Baina... kontuz! Lau puntuko ahapaldi guztiak ez dira horma, ez eta sei, zazpi, zortzi eta bederatziko puntukoak ere harri-pilo. Luzean nahiz laburrean egin daitezke bertso zoragarriak, baita multzo itxuragabekoak ere. Laburrean gaizki egiteak barkagaitzago dirudi, ohitura handiagoa dutelako bertsolariak eta, egitura bakuna izanik, ia kolpe batez sortu eta gogoan har daitekeelako.

Beraz, norbaitzuek honela zirrimarratu nahi izan dute eztabaida hau: ahapaldi luzearen lilura faltsua eta ahapaldi labur klasikoaren xarma bere xumetasunean... Jakina, hau karikatura hutsa da. Bertsoaren lilura edo xarma ez dago luze-laburrean, haren kalitatean baizik. Gai batzuk zortziko txikian, errimo bizian kantatzekoak izan daitezke; beste batzuk, berriz, ideiak erritmo pausatuagoan isuriz, zortziko handian edo hamarreko handian kantatzeko aproposagoak; azkenez, badira sentimendu gozo nahiz latzak, egoera dramatiko eta antzekoak adierazteko... egitura luzeagoak eskatzen dituztenak. Pentsaezina egiten zait Xabier Amurizaren «Naufragoarena», Jon Lopategiren «Everest»koa nahiz Andoni Egañaren «Itsuaarena» lau puntuko bertsoetan kantatzea.

Ahapaldi luzeak itsu-itsuan mirestetik haiei ia debekua jartzera igaro dira batzuk. Ni neu ez nago horretara. Historiaren harian, bertsolarien lehen albisteak ditugunetik dakigu, Gipuzkoako bertsolari hoberenen artean bederatzi puntukoa usu erabiltzen zela. Hala diosku Iztuetak Fernando Amezketarraren garaia kontatzen digunean. Geroago Xenpelarrek sorturiko ahapaldi mota desberdinak ekarpen handia izan dira bertsolaritzan. Kepa Enbeita «Urretxindorra»k maiz erabiltzen zituen ahapaldi luzeak, gerra aurreko mitinetan eta gainerako saioetan. Gero, 1980ko eta ondorengo txapelketetan Amurizak ikaragarritzko astindua eman zion bertsolaritzari ia alde guztietatik. Estilo berri bat ekarri zuen, baina ahapaldi eta doinueta eragin zuen, agian, berrikuntzarik handiena. Egia esan, ahapaldi eta doinu berriak sortuz batera, erdi ahaztuak ziren doinu eta neurri zaharrak berreskuratu eta plazaratu zituen. Harrezkero, Amurizak hasitako abiadan aurrera doa bertsolaritza eta ahapaldi luze eta doinu berrietarako joera txapelketetan somatzen da batez ere.

Doinuari dagokionez, guztitarikoak daude: gregoriar kantua-
ren tristura-ukitua dutenak, sehaska-kanta gozo eta barnekoiak,
alai eta erritmo bizikoak, itzaltsu eta beteak, distiratsuak...
Hauetariko batzuek egokiak dirudite bat-batean erabiltzeko;
beste batzuek, ordea, entzuteko aproposagoak bat-batean sor-
tzeko baino. Zenbait doinu, zail samarrak edo erritmo bizikoak
direlako, ez dira hain erosoak bat-baterako, baina aurrez pen-
tsatu eta ongi taiuturiko bertsoak kantatzeko aproposak...

Azken txapelketetan erritmo baratza duten ahapaldi luzeak
atera dituzte; eskuarki erdian errepikapena dutenak.

Maisuak eta jenioak

Txapelketa honetan zehar maisu handiak ezezik, jenioen
printzak edo zantzuak ere ikusi ditugu. Maisuak egin egiten di-
ra, baina jenioak jai.



Maisuen teknika eta bertsoen egitura ederra dago alde bate-tik; artistaren ukitua eta ideia berri aberatsak bestetik. Ongi osatutako bertsoen artean mota askotakoak entzun izan ditugu beren barruko mamiari bagagozkio:

- a) edukiz motelak, arruntak, egunerokoak, betiko leloaren inguruan zebiltzanak.
- b) edukiz poliki jantziak, baina irudi eta forma ezagunegiak agertzen zituztenak.
- c) ideia eta irudi berri aberatsez beteak. Batzuk goitik behe-ra ongi tolestuak ziren, baina bukaera motelekoak. Beste batzuk alderantziz: hasieran motel, erdialdean betegarririk ere bai, baina bukaeran ikaragarritzko kolpea.

Azken urteotan entzun eta entzun ari ginen izar distiratsu bat, txapeldun handi bat genuela eta urtean zehar garbi era-kusten zuen hala zela. Aurreko txapelketa nagusian, jenio-printzak agertu arren, hau dela bestea dela, ez zuen bererik eman, ez eta Gipuzkoako txapelketan ere. Orain, ordea, txapeldunei dagokien gorengo mailan dugu bertsolarien artean. Bertsolaritzan maisu handi eta jenio. Andoni Egaña, gure ikuspegitik, dena duela dirudi. Norberak jakiten du ondoen bere berri eta hark ere bere buruarengan gabeziaren bat soma

dezake... Agian, bazterreko zenbait pertsonaiarena egiterakoa, haien zapo-hizkera, erdal esapideetara jo gabe, euskara adierazkor indartsuan agertzen ez asmatzea?

Maisuak gehiago ere badira: Euzkitze, Lizaso, Enbeita, Sorozabal bera eta finaleko ateetan gelditu ziren Iñaki Murua eta Mikel Mendizabal ere bai. Iturriaga aparte utziko nuke. Mutil hau benetako jenio bat da eta bertsolaritza serio hartzen badu, izar berri bat piztu dela esan ahal izango dugu aurki bertsolaritzaren zeruan. Oraindik, teknika eta txukuntasun aldetik, maisu handi izateko hainbat falta duela dirudi... Epailleok txapelketan zehar egin genuen bileretariko batean, Unai Iturriagak Leitzan eta Iñaki Muruak Gernikan, biek gartzelako gaian, kantatutako bertsoak aztertu genituen pixka bat. Iñaki Muruarenak goitik beherakoak, gozoak, ongi eginak ziren, eduki aldetik ere politak, maisu baten bertsoak. Unai Iturriagak lapurrarena egiten kantatutakoek, berriz, bazituzten akats batzuk, lotura handirik gabeko puntu bat edo beste ere bai, baina bete-betean asmatu zuen lapurrarena egiten. Hura irudien indarra! Haiek kolpeak...!

Azken aipamentxoak

Beste aipamentxo bat edo bi amaitzeko: Aritz Lopategi eta Jokin Sorozabal isil-isilik eta apalki hoberenen artean sailkatu ziren eta Anoetarako txartela lortu. Ez dira aupadaka edo erronkaka aritzen direnak, baina bai lan ona egiten dakitenak eta bai bata eta bai bestea bertsolari seguruak. Jokin goi-goian aritu zen txapelketa osoan zehar. Aritzek Zumarragan eta Eibarren oso lan dotorea egin ondoren, Bilbon eta finalean pixka bat beherantz egin zuen. Hala ere gazteak indartsu datoz eta hoberenen artean leku egiteko gai direla erakutsi dute. Zortzikoteko gainerakoak? Ez dute nire aipamen beharrik. Maisu handiak dira eta Euskal Herri osoak ezagutzen ditu. Bizkaiko eta Gipuzkoako txapeldunei pixka bat ezkutuago gelditzea egokitu zaie oraingoan.

Azkenez, bertsolariak goratu arren, epaimahaikook ezin geure buruak guztiz zuritu. Kritika latzik ez da izan komunikabideetan. Bilboko final aurrean pixka bat. Euskararen erabilera traketsa ez zigortzearena egotzi digute, baina oraindik inork ez du zigortu ez dugunik frogatu... Dena dela guk badakigu bat-batean bertsoak epaitzea zaila dela eta ez genuen guztia ongi asmatuko. Esaera denez, gaizki egindakoak barkatu eta gainerakoa gogoan hartu!

Luis Baraiazarra Txertudi